

- Bai
- Ba, sartu, sartu lasai.
- Bueno, badago Euskal Herrian herri txiki bat, bi alde dituen.
- Zer?
- Bai, bai. Alde bat normala da eta beste aldean deabruak eta izaki magikoak daude.
- Segi, segi mesedez.
- Ba, deabruak zure hareazko erloñua dute, zure bizitzarena, eta zuk badaukazu hareak gutxi dagoenean buelta eman ahal diozu nahi duzun arte bizirik jarraitzeko.
- Baina, benetan?
- Baietz, baina azkar zuk ez duzu hare askorik eta!

Orduan korrika trena hartu zuen Euskal Herrirantz. Herri misterioitsu hortara heldu zen eta bai, arrazoi zuen, bazegoen alde bat jendez bete denak barrezka eta beste bat iluna eta ez zen inor ikusten. Egia esan beldur pixka bat ematen zuen, baina haraino heldu ostean bere beldurrak gainditu behar zituen.. Pasatu zen, alde maltzurrera eta minutu pare batzuetara deabru bat agertu zitzaion.

- Zer nahi duzu? -galdetu zion deabruak.
- Hiiiilezkooortaaasususunaren bibila nanator- saiatu zen esaten beldurtuta.
- A, bai? Ba hartu - esan zion deabruak.
- Benetan? Probarik pasatu gabe ez ezer?-lkerrek ezin zuen sinetsi.
- JaJaJaJaJaJaJaJaJaJaJaJaJaJaJaJa! Ez, ez, zuk ere trukean zerbaite eman behar didazu.
- Zenbat diru nahi duzu?



- Ez dut nahi zure dirurik, gauza sinpleago bat. Ez maitemintzea. Maitemintzen bazara zure bila joango naiz zu hiltzera.
- Hori ezin dut egin! Maitemintzea munduko gauzarik politena da!
- Edo bizitza edo maitasuna.